

Ehun langile baino gutxiago dituzten Bizkaiko hamar enpresatik lauk ekimen berritzaileak garatu zituzten iaz

% 76,5ek inpaktu handia nabaritzen du egindako berrikuntzengatik

**Datuek erakusten dutenez, enpresa-sarearen jarduera berritzailearen
egonkortasunak markatzen du egoera, eta, hala, azken urteetako beherakada
gelditu egin da**

Bilbo, 2024ko ekainaren 19. Bizkaiko enpresen %41,1ek aitortzen du **jarduera berritzailearen** bat egin izana 2023an. Hala islatzen du **Norabidea2024*** azterlanak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak, Barrixe - Berrikuntza Behatokiaren bidez, Bizkaiko konpainien jarduera berritzailea aztertzeko egina.

Txostenaren arabera, **enpresa horien %53,3k aitortzen du azken lau urteetan jarduera berritzailearen bat egin izana, etengabe edo aldizka.** Eta jarduera berritzaileak etengabe egin dituztenei erreparatzen badiegu, lautik batek berrikuntzaren jardute metodiko bat erakusten du.


Datu horiek erakusten dute egonkortasun-egoera bat dagoela enpresen jarduera berritzaileari dagokionez. Hala, 2017tik ikusten zen beherakada geldiarazi egiten da, eta egonkortasun bat sortzen da, itxuraz pandemiak ekarri zuen eraldaketara bultzatzen jarraitzen duena.

Berrikuntza gehienak prozesuen esparruan egiten dira.

2023an, **prozesu berriak garatu dituzten enpresen kopurua handitu egin da berriz ere (% 35,3)**, eta, beraz, oraindik ere arlo horretan jarduten dute nagusiki enpresek beren jarduera berritzailean. Hazkunde hori, batez ere, ekoizpen-teknologia berriak sartzearen ondorio da. **“Prozesuen berrikuntzen”** artean, gehien aipatzen dena informazioaren edo komunikazioaren prozesamenduarekin lotutakoa da, % 17,3rekin.

“Produktu eta/edo zerbitzuko berrikuntzak” % 24,0 dira, eta datu hori egonkor dago azken urteotan. Talde horren barruan, enpresarentzat berriak direnen ehunekoa handiagoa da (%17), merkatuarentzat direnen aldean (%13,9).

*Norabidea 2024 se ha realizado siguiendo la definición del Manual de Oslo 2018, donde se elimina la distinción entre innovación tecnológica y no tecnológica y se establece que las innovaciones son de producto y/o proceso.



Hamar enpresatik hiruk berrikuntza-maila altua edo oso altua dute

Bizkaiko Berrikuntza Indizeak, inkesta hau egitea ahalbidetzen duenak, enpresetan jarduera berritzailearen sistematizazio-maila neurtzen du, eta egonkor mantentzen da; izan ere, pixka bat hazi da eta Bizkaiko enpresen %28,1 (%26,8 2022an) berrikuntza-maila altuan edo oso altuankokatzen du; berrikuntza beren estrategiaren parte duten establezimenduak dira, eta berrikuntzaren esparruan portaera sistematikoagoa izaten laguntzen dieten tresnak dituzte.

Ez-berritzaileen artean, gehienak oso estadio baxu edo baxuetan daude, baina % 12,7 berrikuntzari ekiteko prestatuago daude. Adierazle horrek aurreko urtean lortutakoa hobetzen du, orduan %10,9koa baitzen.

Norabidea 2024ren beste ondorio nagusietako bat da **bai onurek bai arrakastaren pertzepzioak oso balantze positiboa erakusten jarraitzen dutela berrikuntza lantzen duten erakundeen artean.**

Hala, **erakundeen % 78,3k arrakastatzat jotzen du berritzeko erabakia**, eta, hala, 2022ko mailari eusten dio indartsu igo eta % 77,2an kokatu zenean. Horrela, segida historikoaren indizerik altuenera hurbiltzen da, 2020an lortutako % 78,8ra, eta nabarmen gainditzen ditu pandemiaren urteak baino lehenagoko zenbakiak.

Egindako berrikuntzen arrakastarekiko irmotasunaz gain, azpimarratu behar da porrotaren pertzepzioak bere horretan jarraitzen duela, eta % 6,6k uste duela egindako berrikuntzek ez dutela espero zen eragina izan.

Era berean, berrikuntza-jarduerak egin dituzten ia enpresa guztiek (% 93,6) inpaktu positiboren bat hauteman dute, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hamarretik ia zortzik (%76,5) adierazi du jarduera berritzailearen ondorioz “inpaktu handiko” onuratzat jotzen duen irabazia lortu duela, eta, hala, aurreko urtean izandako hazkundeari eutsi egin zaio (%69,9tik %76,2ra pasatu zen).

Arrakastaren pertzepzio eta etekinen identifikazio hori lotuta egon daiteke gero eta enpresa gehiagok esaten dutelako kudeaketa-kontabilitateko sistemak dituztela sartutako berrikuntzetatik datozen onurak identifikatu ahal izateko (egoera hori hazi

egiten da, eta % 19,5etik % 24ra pasatzen da), eta aurrekontuetan berrikuntzarako berariazko partida bat edukitzearekin (% 17,9).

Bizkaiko enpresa berritzailearen ezaugarriak

Azterlanari esker, zenbait aldagai identifika daitezke jarduera berritzailearen jardunbide sistematizatuenaren arabera. Enpresa sortu berriak dira, negozio-zikloa abian dutenak, 50 eta 100 langile arteko plantillak dituztenak, batez ere Zerbitzuen eta Industria eta Energiaren sektorekoak, esportatzaileak, eta bere fakturazio-ehunekoa edozein dela ere. Era berean, beren jarduerak garatzeko laguntza publikoak jasotzen dituzten erakundeak dira, berritzeko beste konpainia batzuekin edo erakundeekin lan egiten dutenak, I+G+b arloko langileak dituztenak eta ezarritako ekintzekin beren itxaropenak bete dituztenak.

Kultura berritzailearik eza eta berrikuntzaren kostua hautsi beharreko oztopoak dira

Beste muturrean, **2023an jarduera berritzailearik izan ez duten konpainien %58,9 daude**. Inolako ekimen berritzaileari ez ekiteko enpresa horiek aipatu dituzten arrazoiek harreman handia dute merkatuaren dinamismoarekin. Indize horrek hazkundea jasaten du, eta inkestatutako enpresek gehien aipatzen duten arrazoia izaten jarraitzen du (% 47,6); aldiz, kostua ekartzen duten enpresen kopurua murriztu egin da, berrikuntzak ez egiteko arrazoi gisa, % 23,7tik % 18,9ra pasatu baita.

Berrikuntza-asmoagatik enpresa ez-berritzaileak galdetuta, 2019ko norabidean % 38,9 ziren berrikuntza-premiarik ez zutela esaten zuten enpresak; gaur egun, talde horretan, enpresa horien % 25 daude, eta aurreko urtean baino sendotasun gutxiago erakusten dute, orduan % 21,3koa baitzen.

Egoeraren balorazioa eta etorkizuneko gakoak

Norabidea 2022k beheranzko datu batzuk erakusten zituen Covid olatuen ondorioz eta nazioarteko merkatuan zeuden tentsioen ondorioz, eta **norabidea 2023k** Bizkaiko enpresa-ehunaren jarduera berritzailea berreskuratu izanaren seinaleak erakusten zituen; izan ere, adierazle askoren hazkundea zegoen, eta batzuek igoera handiekin egiten zuten (egindako berrikuntzen inpaktu handia, helburuak gainditzea eta itxaropenak betetzea, besteak beste). **Norabidea 2024k** egonkortasunaren agertokia erakusten du Bizkaiko enpresetako jarduera berritzaileari dagokionez, aztertutako adierazle askok ia aldaketarik gabe jarraitzen baitute, aurreko azterlanean lortutako erantzunetan ikusten zen bezala.

Zaila da hurrengo ekitaldietan gertatuko dena iragartzea. Oro har, jarraipenerako joera sumatzen bada, eta Bizkaiko enpresa berritzaileek etorkizunarekiko adierazi duten asmoa balio positiboetan jarraitzen duen arren, pandemia garaitik etengabeko jaitsiera ikusten da. Hala ere, produktu- edo zerbitzu-arloan berrikuntzak ezartzean oinarritzen dira nagusiki asmoak.

Aipatutako gai horietaz gain, badira Bizkaiko enpresek etorkizunean izango duten jarduera berritzaileari dagokionez baikorrak izan daitezkeen elementuak, hala nola:

- hiru proiektu edo gehiagotan lan egiten duten edo lan egin duten enpresen ehunekoa % 8,9tik % 11,2ra pasatu da, eta agian ez dira proiektu handiez ari, baizik eta ekoizpen-teknologia berriez eta enpresako hainbat arlotan digitalizazioaz;
- lehenengo aldiz eta hazkunde nabarmenarekin (aurreko urtean %57,2k eta %43k izan zuten hazkundera), enpresa berritzaileek berrikuntza beren dinamikan eta enpresa-helburuetan integratuta dutela adierazten dute, berrikuntza sustatzeko faktore nagusia izanik (merkatuaren, lehiaren edo bezeroen eginkizunaren aurretik), eta horrek pentsarazten du jarduera berritzailea enpresa-kulturaren parte dela eta ez dela gertaera puntual eta isolatu bat;
- olatu honetan, kontsultatutako hamar enpresatik hiruk laguntza edo dirulaguntzaren bat izan dute, eta, beraiek adierazten duten bezala, transformazio digitalera bideratu da batez ere. Azken bost urteotako daturik altuena da, eta, gainera, laguntzak jasotzen dituzten 10 langile baino gutxiagoko enpresen kopuruak gora egin du neurri handi batean;
- eta enpresa ez-berritzaileek jarrera ez hain drastikoak erakusten dituzte, berrikuntza-ideiatik urrun daudenak; izan ere, murriztu egiten dira berritu beharrik ez dutela dioten enpresak, eta % 18,1ean kokatzen dira; 2021ean % 24,8koa zen eta babesa eskatzen duten enpresen kopurua hazi egiten da; izan ere, azken bost urteetan % 53,1etik % 78,6ra pasatu da.

Kontu horiek guztiek pentsarazten dute enpresek berrikuntza jarraitu beharreko bidea delako uste osoa indartuko dutela; izan ere, teknologia edo prozesu berriak asmatu, abian jarri eta egokitzeko gaitasuna erabakigarria da, eta lehiakideen aldean dagoen aldea markatuko du.

Berrikuntzari dagokionez, krisialdi honi 2008an baino hobeto aurre egiten ari zaiola egia badela badirudi ere, ez dira alde batera utzi behar orain arte ETE berritzaileen oinarria zabaltzeko eta haien jarrerak indartzeko egindako ahaleginak.



‘Norabidea – Bizkaiko enpresetan berrikuntzak duen garrantziari buruzko inkesta’
txosten osoa hona hemenkontsulta daiteke:

<https://barrixe.com/eu/txostenak/norabidea-berrikuntzak-bizkaiko-enpresetan/norabidea-2024/>